

Elkarrizketa anitzak saiakeran

Errepaso txikia emango diegu gure eskuetan izan diren saiakerei, eta, nola ez? aurrekoan egin genuen bezala, batzuk aipatu besterik ez ditugu egingo

JON KORTAZAR



Aurreko hilean 2025eko euskal literaturak kon-takizunean eman duena aipatu genuen. Urte oparoa izan dugu genero horretan. Eta ez da gutxiago izan saiakera alorrean, nahiz eta askotan ez den garbi geratzen zer ote den genero hori aipatzen dugun baikoitzean. Adibide bat jartze aldera, Juan Luis Zabalak urtero-urtero ateratzen duen argitalpenen zerrendan (hemen duzue ikusgai:

(ehu.eus/ehg/apalategia/) multzo handi bat sartzen du saiakera alorrean, eta horrela saiakeraren barnean sartzen ditu: biografiak eta autobiografiak, saiakerak, kronikak eta bi-diaia liburuak, lekukotasunak, ikerlanak, zientzia eta dibulgazioa, artikulak eta hitzaldi bildumak, kantutxoak, gidak, hitzaldiak eta gramatikak, gida liburuak, pintura eta arte liburuak, ma-

rrazkiak eta –hau ezustea!– bestelakoak...

Saiakera literarioa

Kutxa zabala da. Eta anabasa horren barnean zehaztu beharko genuke zer den saiakera literarioa, hain zuzen ere gogo literarioz, estilo-borondatez, edertasuna lortzeko asmoz egindako liburuak, eta Euskaltzaindiak honela definitzen duena: «Gai jakin bati buruzko gogoetak biltzen dituen hitz lauako idazlana» eta Literatura Terminoen hiztegiak hiru ezaugarri janzten du: Fikzioaren gainean ez eraikitzea, nobelak egiten duen moduan; egilearen eta irakurlearen artean lotura estuak eta irmoak sortzea; eta literaturtasuna, hau da: «helburu estetiko edo literaturaren sortzeko gogo».

Bada, esan dezakegu, 2025. urtean saiakera literarioa eta berak sortzen duen idazlearen

eta irakurlearen arteko elkarrizketak nabarmendu direla, eta benetako saiakerak izan ditugula gure sisteman.

Errepaso txikia emango diegu gure eskuetan izan diren saiakerei, eta, nola ez? aurrekoan egin genuen bezala, batzuk aipatu besterik ez ditugu egingo. Oraindik, Durangoko azokaren liburu zaparrada ostean, irakurri gabe geratu baitzaizkigu.

Idazle ezagunen saiakerak

Autore ospetsuen hiru lan nabarmenduko nituzke lehen begirada batean. 2024an Euskadi Saria jaso zuen Jon Gerediaga poetak (1975) ekintza poetikoari buruzko, bere praktika poetikoari buruzko, hausnarketa sakona argitaratu du. 'Izena eta izana (Hitz poetikoari buruz)' deitu du eta lan horretan erro sinbolistak bere lan poetikoan duen oinarritzko

sakontasunaren erretratu fidela egin du. Hölderlin (1770-1843) Alemaniako poeta idealistaren obran definitutako hitz bikainaren ibilbideei jarraituz, pertsonaren eta naturaren arteko loturaren bila abiatu da.

Arantxa Urretabizkaia (1947) narrazioak emakumeen zahartzaroa eta gizarteak eskaintzen dien tokia hartu ditu azken garaian gai nagusi moduan, ardatz soziologiko gisa. Eta orain, horri buruzko hausnarketa aurkeztu digu. 'Zahartzaroaren maparen bila' liburuan beste ikuspegi batetik

Saiakera literarioa eta berak sortzen duen idazle eta irakurlearen arteko elkarrizketak nabarmendu ziren iaz

heldu dio gaiari, eta gorputza adimenetik aldentzen doan adinean bizitza bete bilatzen duten pertsonen buruzko ikuspegi eman dio irakurleari, gorago ikusi dugun saiakeraren bigarren helburua betetz, hau da, egilearen eta irakurlearen arteko elkarrizketa indartz.

Felipe Juaristik (1957) ikuspegi etiko batetik irakatsi dizkigu filosofoen sarean islatzen diren ideia unibertsalen bide ugariak. Kasandraren irudian oinarrituta, 'Idia mihian' liburuak oso mundu pertsonala eskaintzen duela dirudi, Greziako isla gure artera ekarrit.

Aforismoa saiakeraren barnean sartzen badugu, zalantzarik gabe, Juan Kruz Igerabidearen 'Nonahiko musika' aipatu beharko genuke, pentsakizuna arte bihurtzen baitu egileak hain gustuko dituen paradoxen bidez, bere pentsakizunaren finetia agerian uzten duelarik orri orri.

Elkarrizketa ez da bukatu

Ez, lau horiek aipatuz ez da elkarrizketa bukatu. Kepa Altonagak, Miren Billelabeitiak, Unai Elorriagak, Karmele Jaiok, Uxue Alberdik beste elkarrizketa bideak proposatu dizkigute bere lanen orrietan 2025ean.

Gazteak eta poesiaren akuilua

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑANBRES

Miren Billelabeitiaren lan berriak badu loturarik bere aurrekoarekin. 2023an saiakerako Euskadi saria jaso zuen liburu hartan irakurketaz –eta irakurzaletasuna nola kutsatu gazteei– jarduten bazuen, oraingoan genero poetikoa haiengana gerturatzeko modua jorratzen du.

Poesiak gazteentzat interesik ez duela dioen klitxearen aurrean, kontrako proposatzen digu: institutuko ikasleak poesiarekin hunkitzeko gai dira, beren bizi-kezkekin bat egiten duten poemak eskainiz gero. Alabaina, bitartekari lana eraginkortasunez burutzeko, irakasleak ezagutza eta sentsibilitatea behar ditu kanon poetikoari zein egungo poesiari buruz, ez baita soilik zer, baizik eta nola egin poesiarekiko gus-tua hezteko.

Idazleak modu zintzoan kontatzen du nondik sortu zitaion

poesia gelan lantzeko pizgarria: Nuccio Ordineren testu batek eta Angel Erroren 'Lerro etenak' proiektu bat eratzera eramane zuten. Hartara, kontu handiz aukeratu zituen ikasleengan poesiarekiko garra eragin zezaketen irakurgaiak; lehenik, Kirmen Uribe; gero, Miren Agur Meabe. Zerrenda horri beste batzuk gehitu zizkion, ikasleentz atzerelikadurako iruzkinez osatu ahala. Saiakera honetan poesiarekiko grina eta gozamenak aise sumatzen ditugu, zenbaitetan eguneroko itxuraz, egilearen zalantzak eta gogoetak agerian, umiltasunez zerbait berria egiten ari delako ideia islatzen duelarik. Eta hunkigarria begitandu zait ikasleentz erantzun eta erreakzioekin erakusten duen harridura, agian ez baitzuen espero hainbesteko arrakasta izatea, proposamenak funtzionatzen duela konturatzen denean. Errespeta eta emozioz gomutatzen ditu 2020ko Covid garaian izandako azken eskolak, bereziki, ikasleek ozen irakurritako poemen grabazioak.

EGUNA HASTEKO OLERKIAK
MIREN BILLELABEITIA
Pamiela
168 or
17 euro



Gazteen poesiaren gainean interes urriaren aurreiritziak alboratuz, testigantza honi esker itxaropenerako leihoa zabaltzen du Billelabeitiak 2026ari hasiera emateko.

Erregeen magia

ARANTXA URRETABIZKAIA



Esan behar nuen ez naizela sekula errege magoen zalea izan, baina ez litzateke guztiz zuzena izango. Zehaztasun guztia-ekin esan dezaket ez dudala zaletasun hori sentitu gutxienez azken hirurogeita hamar urteotan. Oparien gakoak ulertu nuenetik. Ulertu nuenetik erregeek asko zutenei asko ekartzen zieten eta gutxi zutenei gutxi edo ezer ez, opariak jasotzen zituena zintzoa izan ala ez. Hots, ez zutela desberdintasuna arintzen, biderkatzen baizik.

Gure kasuan, oraindik zaletasun apur bat nuen bitartean, behin baino gehiagotan gutun bat jaso genuen gutxitan erabiltzen zen jangelan uzten genituen zapaten gainean. Erregeek esaten ziguten zintzo portatu ginela,

bai, eskolan nahiz etxean, baina, tamalez, ezin zigutela eskatutakoa ekarri, agian hurrengo urtean...

Lasaitu eta guzti egin nintzen ni baino urte bat zaharragoa den ahizpak kontatu zidanean zer zegoen erregeen oparien atzean, edo, hobe esan, nortzuk zeuden gutun haien atzean. Orduan agortu zitzaizkidan erregeekiko zaletasun hura, urte batzuetan anaia gazteagoaren ilusioaren onetan antzezpenari eutsi bagenion ere. Anaiak, haur askok bezala, luza-roan ezkutatu zuen sekretuaren jabe zela oparien esperoan, baina halako batean bukatu zen harentzat ere erregeen kontua. Listo, itxia kapitulua.

Joan dira dekretuz zoriontsu izan behar duten egunak eta itzuliak gara normaltasunera. Azken suzuria erregeen festa izan da. Trenez, itsasontziz, autoz nahiz zaldi gainean, erregeek bete dituzte gure kaleak. Agian etxe askotan opariak gabon gauean banatu dira, hor ere asko duenari asko eta gutxi duenari gutxi oparitu zaio. Eta, halere, erregeen kontuak ez du indarririk galdu, agian bai etxeetan, kaleetan ez.

Itzuli dira erregeak sorterrira eta han izango dira, goseak eta hotzak da-goen herriaren artean. Bejondeiela.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 **Enarak** Bernardo Atxaga. Pamiela.
- 2 **Dena zulo bera zen** Eider Rodríguez. Susa.
- 3 **Miñan** Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa.
- 4 **Maitasun kapitala** Karmele Jaio. Elkar.

EZ FIKZIOA

- 1 **Harrizko bihotza** Karmele Jaio. Elkar.
- 2 **Esnatu ala hil** Garikoitz Goikoetxea/Iñaki Iurrebaso. Elkar.
- 3 **Esne-berriketan** Uxue Alberdi. Elkar.
- 4 **We hare plenty in here Euzkadin eginak** Simon Gandarias. Pamiela.